



Datuen Babesari buruzko Jakinarazpen Orokorra Negozio Bazkideentzat

Zurekin daukagun negozio-harremanean, zure datu pertsonalak prozesatu behar ditugu. “Datu pertsonalak” identifikatutako edo identifikatu daitekeen pertsona fisikoarekin lotutako edozein informazio dira (esate baterako, izenak eta helbideak).

MFAek konpromiso irmoa hartzen du, gure enpresa-bazkideen datu pertsonalen segurtasuna eta pribatutasuna babestuta daudela bermatzeko (esate baterako, bezeroak eta hornitzaileak). Zure datuak babestu behar ditugunez, betebeharrak hori betetzen dugula bermatzeko konpromiso irmoa hartu dugu. Hori dela eta, gure enpresa-bazkideen jokabidea ere berbera izango delakoan gaude.

Hona hemen gure enpresa-bazkideen datu pertsonalak prozesatzeko moduaren laburpena:

1. Prozesatutako datu pertsonalen kategoriak, prozesaketaren asmoa eta legezko oinarria

Negozio-bazkideekin ezarritako negozio-harremanaren testuinguruan, MFAek honako helburu hauetarako prozesatu ahal izango ditu datu pertsonalak:

- Negozio-bazkideekin produktuei, zerbitzuei eta proiektuei buruz komunikatzea; esate baterako, negozio-bazkideen kontsultak prozesatzeko.
- Harremanak (kontratuzkoak) hastea, prozesatzea eta kudeatzea eta MFAen zein negozio-bazkidearen arteko negozio-harremani eustea; esate baterako, honako helburu hauetarako: produktuen edo zerbitzuen eskaerak prozesatzea; kontabilitaterako, fakturaziorako eta kobrantza-asmoetarako ordainketak prozesatzea; entregak egitea; eta artapenerako zein konponketetarako jarduerak egitea.
- Honako hauxe egitea: bezeroentzako inkestak, marketineko kanpainak, marketineko azterketak, zozketak, lehiaketak eta sustapenerako beste jarduera edo ekitaldi batzuk.
- Geure produktuen, zerbitzuen eta webguneen segurtasunari eustea eta babestea, segurtasun-mehatxuak, iruzurra eta beste jarduera kriminal edo gaizto batzuk prebenitzeko eta antzemateko.
- Honako hauxe betetzen dela ziurtatzea: (i) legezko betebeharrak (esate baterako, zerga eta merkataritza arloko legearen arabera erregistroei eusteko betebeharrak) eta (ii) voestalpine taldearen politikak.
- Liskarrak likidatzea, gure kontratu-hitzarmenak ezartzea eta legezko erreklamazioak ezartzea, erabiltzea edo defendatzea.

Lehen aipatutako asmoetarako, MFAek datu pertsonalen kategoriaz hauek prozesatu ahal izango ditu:

- Negozioaren harremanetarako informazioa; esate baterako, izena, lantokiaren helbidea, laneko telefono-zenbakia eta posta elektronikoen helbidea.
- Ordainketarako datuak; esate baterako, ordainketak prozesatzeko eta iruzurra prebenitzeko behar diren datuak, baita kreditu-txartelen zenbakiak eta txartelen segurtasun-kodeak.
- Jendaurrean eskuragarri dauden zerbitzuetatik, informazioko datu-baseetatik eta kreditu-agentzietatik bildutako informazioa.
- Harremanak (kontratuzkoak) hasteko, prozesatzeko eta kudeatzeko eta negozio-harremani eusteko prozesatu behar den beste informazio bat edo zuk zeuk borondatez eman duzun informazioa; esate baterako, egindako eskaerak, eskaeren xehetasunak,



proiektuen kontsultak edo xehetasunak, gutunak eta negozio-harremanarekin lotutako beste datu batzuk.

Datu pertsonalak prozesatu egin behar dira, lehen aipatutako asmoak bete ahal izateko, baita negozio-bazkidearekin kontratu-harremana edo kontratuaren aurretiko jarduera garatzeko ere.

Aurkakoa adierazten ez bada, datu pertsonalak prozesatzeko oinarri juridikoa Datuak Babesteko Arauketa Orokorraren (DBAO) 6(1) (a) artikulua (baimena emanaz gero) edo 6(1) (b) edo (f) artikulua izango da.

- Prozesaketa beharrezkoa izango da, datuetako subjektuak daukan kontratua betearazteko edo kontratuaren aurretiko neurriak ezartzeko.
- Prozesaketa beharrezkoa izango da, kontrolatzailearen edo hirugarrenaren zilegizko interesen arabera asmoak betetzeko.

Lehen aipatutako datu pertsonalak ematen ez badira edo nahikoak ez badira edo MFAek kasuan kasuko datu pertsonalak biltzerik ez badauka, baliteke azaldutako asmoak bete ezin izatea edo jasotako eskabidea/k prozesatu ezin izatea. Mesedez, halakoetan oso kontuan hartu ezin litekeela inolaz ere adierazi guk geure kontratu-betebeharrak bete ez ditugunik.

2. Datu pertsonalen transferentzia eta zabalkundea

Hori egiteko legezko baimenik badu, MFAek datu pertsonalak transferitu ahal izango dizkie voestalpine taldeko beste konpainia batzuei (www.voestalpine.com/locations), auzitegiei, agintaritzei, abokatuei edo negozioko beste bazkide batzuei (esate baterako, eskaerak betearazteko eta prozesatzeko bidalketetako eta logistikako bazkideak).

Horrez gain, MFAek prozesatzaileak ere inplikatzeko (zerbitzuen hornitzaileak), datu pertsonalak prozesatzeko (ITko laguntza-kontratuaren arloan, esaterako). Kontratuaren arabera, prozesatzaile horiek datuen babeserako ezarri beharreko araudiak bete beharko dituzte derrigorrean.

Datu pertsonalen hartzaileak Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan egon ahal izango dira kokatuta ("hirugarren herrialdeak"), bertan ezarri beharreko legeek datuetako subjektuaren sorterriko legeen datuen babes-maila berbera eskaintzen ez badute ere. Halakoetan, legezko eskakizunen arabera, datu pertsonalak transferitu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Europar Batasunak hirugarren herrialderako egokitasun-erabakia hartu izana, babes egokiak adostea (esate baterako, EBko kontratu-klausula estandarrak ezartzea), hartzailea onartutako ziurtapen-sistemako partaidea izatea (esate baterako, EB-AAEeko Pribatutasun Ezkutua), Datuak Babesteko Arauketa Orokorraren 47. artikulua arabera lotesleak diren arau korporatiboak ezartzea edo Datuak Babesteko Arauketa Orokorraren 49. artikulua arabera egoera berezietarako indargabetze-prozesua abian jartzea (esate baterako, zuk zeuk proposatu dizuten transferentzia berariaz baimendu duzulako, egokitasunari eta babes egokiei buruzko erabakirik ez dagoenez datuetako subjektuari transferentzia horiek arriskutsuak izan daitezkeela jakinarazi ondoren). 6. zenbakiko harremanen zerrendatik, badago informazio gehiago eta ezarritako neurrien kopia lortzerik.

3. Atxikipen-epealdiak

Datu pertsonalak biltzeko orduan aurkakoa berariaz adierazi ezean (esate baterako, baimen-adierazpenean), zure datu pertsonalak ezabatu egingo dira, datu-bilketaren helburuak betetzeko orduan biltegitartuta egotea beharrezkoa ez denean, betiere, legearen arabera (esate baterako, zerga edo merkataritza arloko legearen arabera) atxiki egin behar ez badira edo legezko



erreklamazioen ezarpenari, erabilerari edo defentsari begira zure datuak luzaroago biltegituta eduki behar ez baditugu.

4. Datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea, prozesaketaren murrizketa, prozesaketari aurka egiteko eskubidea, datuak eramateko eskubidea eta berariaz emandako baimena ezabatzeko eskubidea

- DBAOren 15. artikulua arabera, behar besteko eskubidea izango duzu, kontrolatzaileak zurekin lotutako datu pertsonalak prozesatzen ari diren ala ez baieztatu diezazun eta datu horiei buruzko informazioa eskuratzen ari den ala ez egiaztatu diezazun.
- DBAOren 16. artikulua arabera, behar besteko eskubidea izango duzu, zuzenak ez diren datu pertsonalak justifikaziorik gabeko atzerapen barik zuzendu ditzatela eta osatu gabeko datu pertsonalak osatu ditzatela eskatzeko.
- DBAOren 17. artikulua arabera, zeure datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea izango duzu.
- DBAOren 18. artikulua arabera, prozesaketa mugatzeko eskubidea izango duzu.
- DBAOren 20. artikulua arabera, datuak eramateko eskubidea izango duzu.
- DBAOren 21. artikulua arabera, datu pertsonalen prozesaketari aurka egiteko eskubidea izango duzu.
- Azkenik, agintaritzaren ikuskatzailearen aurrean kexa aurkezteko eskubidea izango duzu.
- Datu pertsonalen prozesaketa zure baimenean oinarrituta badago, zeure baimena edonoz ezeztatzeke eskubidea izango duzu. Baimena ezeztatu arren, ez du inolako eraginik izango ezeztatu aurretiko baimenean oinarritutako prozesaketaren legezketasunean.

Eskubide horri eraginkortasunez erantzun ahal izateko, gurekin harremanetan jarri besterik ez duzu. Horretarako, harremanetarako hurrengo datuak erabili eta nor zaren baieztatu beharko diguzu; zeure NANaren kopia elektronikoa bidalita, esaterako.

5. Datu pertsonalen babesa

Zure datu pertsonalen segurtasuna ezin garrantzitsuagoa da guretzat. Beraz, neurri bereziak ezartzen ditugu, zure datu pertsonalak honako egoera hauen aurka babesteko: galtzea, txarto erabiltzea, baimenik gabe eskuratzeko, manipulatzeko edo zabaltzeko, honako hauexek ere kontuan hartuta:

- Gure instalazioetara sarbide mugatua edukitzea (sartzeko kontrola).
- Euskarriak eskuratzeko eta babesteko eskubideak ezartzea (transferentziarako sarbidea eta kontrola).
- Sareko segurtasun-neurriak hedatzea; esate baterako, birusen kontrako softwarea, suebakiak, segurtasuneko eguneraketak... (sarearen kontrola).

Inplikatzeko ditugun prozesatzaile guztiak gure segurtasun-kontzeptuaren betebeharraren daude, eta antzeko segurtasun-neurriak edo berdinak bete behar dituzte derrigorrean.

6. Harremanetarako

Datuen pribatutasunarekin lotutako galderak egiteko eta lehen aipatutako eskubideak erabiltzeko, MFAeko datuen babesarako erakundearekin helbide elektronikoa honetan harremanetan jarri besterik ez duzu: nicolas.levilland@mfarberats.fr



Negozio Bazkideentzako Datuen Babesari buruzko Jakinarazpen Orokor hau lantzean behin berrikusten da. Azken berrikuspenaren data orri-oinean agertzen da.